

Prensa oharra

Elkartasun erakustaldia koronabirusaz kaltetu direnen alde

EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 120.000 EURO BAINO GEHIAGO EMAN DIZKIOTE GURUTZE GORRIARI GIZARTE BAZTERKETA JASATEKO ARRIKUAN DIREN HAUREN ETA FAMILIEN MESEDETAN

- EROSKI-k 60.000 euro pasako ekarpena egin du, eta ordainlekuan bezeroek dohaintzan eman dutenari gehitu dio
- Gurutze Gorriak COVID-19ari aurre egiteko eratu duen RESPONDE planean erabiliko du dirua. 11 bat milioi euroko aurrekontua du, eta, horrekin, beharrezko diren 1.350.000 pertsonari lagunduko dio

Elorrio, 2020ko apirilaren 27a.- [EROSKI](#)k eta haren bezeroek 120.000 eurotik gora bildu dituzte [Gurutze Gorria](#)rekin martxan jarri duten kanpainan. Duela aste batzuk abiatu zen, elikaduran eta higienean laguntzeko bazterketa arriskuan diren haurrei eta familiei; izan ere, lehen baino okerrago baitaude COVID-19aren krisiagatik.

EROSKI, FAMILIA eta CAPRABO izeneko denda guztietan egin dute kanpaina, Espainia osoan. EROSKI-k 60.000 euro pasako ekarpena egin du, eta ordainlekuan bezeroek dohaintzan eman dutena bikoiztu du.

"Beste behin, bezeroak gure alde irauli dira lehenbiziko egunetatik, eta elkartasun handia erakutsi digute. Eskerrak eman nahi dizkiegu emandako laguntzagatik; izan ere, krisi honetan, haur eta familia asko ari da gelditzen oinarrizko elikadura beharrak asetzeko janaririk gabe. Ekarpenari esker, erakutsi dugu indarrak batuta gauza handiak lor daitezkeela", esan du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

Ekimen honen bitartez biltzen den dirua osorik emango zaio Gurutze Gorriari, erabakitasunez ari baita bere RESPONDE planarekin COVID-19 pandemiak gizartean eragindako inpaktua murrizten Espainia osoan, batez ere zaugarrienak diren kolektiboen mesedetan. *"Gurutze Gorriak ongi asko daki horrelako larrialdietan ezinbestekoa dela denok elkarrekin jardutea eta laguntzea. COVID-19 pandemia gizarteko alor askotan ari da jendea era zaugarrian uzten, eta jende*

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

horrek bete-beteko esku hartzea behar du; gainera, jakin beharra dago laguntza hori nola eman eraginkortasunez eta ahal den azkarrena, ahal den jende gehienarengana iristeko inor bazterrean utzi gabe. Horregatik, izugarri estimatzen dugu Gurutze Gorriaren RESPONDE planari lagundu diotenak; guztiona da plan hori eta denok elkarturik lortuko dugu krisi hau gainditzea", azaldu du Javier Senentek, Gurutze Gorriaren Espainiako presidentek.

Gurutze Gorriaren RESPONDE plana jarduera plan zehatz bat da erantzun osoa emateko pentsatua, eta asmoa da 1.350.000 lagunengana iristea, 11.000.000 euro inguruko aurrekontuarekin; gainera, edozeinek egin dezake bere ekarpena funts horretara. Plan hori gauzatzeko, 40.000 boluntario ariko dira estatu osoan 1.400 gunetatik baino gehiagotatik.

Gurutze Gorriari buruz

Gurutze Gorria da munduan gizateriari eta herritarrei laguntzen dien munduko mugimendurik handiena. 155 urte daramatza entitate publiko zein pribatuekin lanean giza duintasuna edonora eta edonoiz zabaltzeko, edozein dela ere egoera. COVID-19aren krisia hasi zenetik ari da lanean gaitzak erasandako munduko herrialde guztietan, eta sekula baino baliabide, gaitasun eta pertsona gehiago jarri ditu oro har modu zaurgarrienean bizi direnei laguntzeko.

Espainian, Gurutze Gorriak 200.000 boluntario baino gehiago ditu, eta 1.400 arretagune inguru; horretaz gainera, 1.360.000 bazkide, enpresa eta aliaturen babesa du. Horiei guztiei esker, 4 milioi lagun ingururi lagundu ahal dio Espainia osoan, eta horietatik 1,7 milioiri baino gehiagori ematen die arreta gizarte programen bidez.

Gurutze Gorriaren eta Medialuna Rojaren Nazioarteko Mugimenduaren parte da Espainiako Gurutze Gorria, eta 192 herrialdetan dago. Oinarrizko zazpi printzipio hauekin jarduten da: Gizatasuna, Inpartzialtasuna, Neutraltasuna, Independentzia, Borondate Izaera, Batasuna eta Unibertsaltasuna.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

EROSKIri buruz

Kooperatibaren helburuetariko bat da gizartea enpresaren jarduerarekin eraldatzea. Kontsumo kooperatiba den aldetik, proiektu kolektiboa da EROSKI, kontsumitzaileari eta gizarteari emana. Horregatik, lau eremutan lantzen du bere konpromiso soziala, eta eremu horiek erakusten dute zein den haren gizarte erantzukizuna: elikadura osasungarriaren sustapena, kontsumitzailearentzako informazioa, ingurumenaren iraunkortasuna eta elkartasuna.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)